

# HERNANIK kronika

2004 urtea  
Otsailak 29  
Igandea  
Alea: 1033  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



Itxura hau zuen Hernanik atzo goizeko 09:00etan, harrobi aldetik begiratuta. Urteak dira Hernani ez zuela horrela zuritzen.

## Elurrak Hernani txuritu du, eta gaur ere jasaren bat bota lezake ilunabar arte

■ Atzo arratsaldean ura moztuta egon zen herrian, itxuraz, eguraldiak eragindako arazoengatik ■ ‘Cuesta de la muerte’ eta herri barrua itxita egon ziren goizeko 08:30ak arte baina, hortik aurrera ez zen arazorik izan.

HERNANI eta inguruak txuri-txuri jeiki ziren atzo, goizaldean izandako elur eta kazkabar erauntsiak medio. Goizeko 08:30ak arte itxita egon ziren herri barrua eta ‘Cuesta de la muerte’-ko aldapa, eta Donostira zijoazen autobusak Errekaldetik barrena ibili behar izan zuten, Aieterako bidea itxita zegoelako. Udaltzaingoak Kronikari jakin arazi dionez, langileak elurra kentzen eta gatza botatzen aritu ziren bideetan eta, 08:30etatik aurrera dena irikita zegoen.

Arratsaldean urik gabe gelditu ziren auzo batzuk, nonbait, eguraldiak eraginda sistema elektrikoak salto egin zuelako. Arazoa 15:00ak

aldean hasi zen eta arratsaldeko 17:00etarako konponduta zegoen.

Gaurko emandako parteak dioenez, goizean elur jasaren bat izango da eta eguerdi partean elurbustia botako du. Arratsaldean euria izango da eta gauerako atertu egingo du. Bihar eguraldi hobea izango dugu. Gaur eta bihar 0 eta 4 gradu bitartean ibiliko da termometroa.

**Arazoak Euskal Herriko bideetan**  
Elurrak eraginda, atzo Euskal Herriko errepide nagusiak itxita egon ziren kotxeentzat goizaldean eta kamioientzat egun guztian, eta autobus zerbitzu asko atzeratu ziren. Alerta egoerak jarraitzen du gaur ere. □



Langileak espaloietako elurra kentzen.



Tilosetaren itxura aldatu egin zuten elurra eta kazkabarrak.



Gazte koadrila Santa Barbaran, trineoa eta plastikoak hartuta.

**Ezker Abertzaleak kontzentrazioak antolatu ditu “Euskal Herria aitoru eta errespetatzea” eskatzeo**

EZKER Abertzaleak kontzentrazioak egitekoak ditu Euskal Herriko herri guztiak, hamabostean behin. Lehenengo kontzentrazioak datorren astelehenean izango dira eta lema dute: *Espaniar eta frantziar inposaketarik ez. Euskal Herria aitoru, errespetatu*. Hernanin Plazan da kontzentrazioa, 20:00etan. Antolatzaleek dei egin diote herritarrei kontzentraziora azaltzeko.

Egitasmoaren antolatzaleek jakitera eman dutenez kontzentrazioetako lema aldatzen joango da aldian aldiko egoeraren arabera eta Euskal Herriak eta Ezker Abertzaleak “jasaten duten zokorratze eta inposizioa” salatuko dituzte. Gai asko eta 3 errealtitate nagusi salatuko dituzte kontzentrazioetan: “Ezker Abertzalea jasaten ari den Aparheida, Euskal Presoen egoera eta frantziar eta espaniar gobernuen inposaketa”. Lehenengo kontzentrazio honetan datozen hauteskundeak salatuko ditu Ezker Abertzaleak. □

## Musika Banda gaur Udaletxeko Arkupeetan

INAUTERIETAKO piñata kontzertua emango du gaur, Hernaniko Musika Bandak, urtero bezala. 14 musika obra joko dituzte, Manuel Sagarnaren esanera, gaur, eguerdiko 13:00etan Udaletxeko Arkupeetan. □

## Osiñagako bidea itxita egongo da, astearteean

HERNANITIK Osiñagara dijoan bidea itxi egingo dute astearteean, *Txurianeko* zubi parean. Udal errioa garbitzen ari da azken uholdeak ezkero, eta asteartean Osiñaga aldean ariko dira lan horietan. Bidea 08:00ak aldera itxiko dute eta Lastaolatik ibili beharko dute auzotarrek. □

AUKERA BERRIA  
ILEA PAINDEGIA  
Arantxa eta Ixiar Larrañaga  
Nafar Kalea 14  
Hernani 20.120  
943 33 24 41

RALAR TABERNA  
ARALAR TABERNA  
Zapa 8 - Tel. 943 33 15 06

**VGALDETXO**  
Jatetxea



Bazkaria eta Afariak  
Ereñozu auzoa  
Tel.: 943 550240  
20120 Hernani (Gipuzkoa)

**tolare sagardotegia**



**OTSUA-ENEA**  
Osiñaga auzoa - Tel. 943 55 68 94 - HERNANI

**Egunero irekita**





Jon Salaberria hizketan, ostegunean Biterin egindako ekitaldian.

## “Ezker Abertzale sendo bat behar du momentu politikoak eta hauteskunde hauetatik indarturik ateratzea da helburua”

■ Salaberriak esan zuen ahaleginak egingo dituztela Ezker Abertzalea hauteskundetatik kentzeko, baina, hautesontziak bete egin behar direla autodeterminazioaren aldeko mezuz ■ Ekitaldia ostegunean izan zen Biterin.

JOAN den ostegunean ekitaldia izan zen Biterin, Ezker Abertzaleak deitura, *Espanari Ez, Autodeterminazioa* lema-rekin. Ekitaldian Jon Salaberriak hitz egin zuen eta bere hitzetan Euskal Herriari Bai esateko garaia da, autodeterminazioaren alde bozkatuta. Momentu politikoak Ezker Abertzale sendo bat behar duela nabarmendu zuen Salaberriak eta datozen hauteskundeetan indar berritzea dela helburu nagusia. Esan zuen Espainiako Gobernuari mezua bidali behar zaiola “ezin izango dutela Ezker Abertzalearekin bukatu” adierazteko. “Azken aldian ari dira esaten Ezker Abertzalea ahultzen ari dela. Guk badakigu hori ez dela egia, baina, erakutsi egin behar zaie Madrilgo Gober-

nuari eta Ezker Abertzalearen ilegalizaziotik kalkulu politikoak egiten duten guztiei” esan zuen. “Gezur honetara apuntatu diren guztiak ezkutatu nahi dute Ezker Abertzaleak 25 urteko borrokarekin lortutakoa, 25 urte geroago Moncloako esatutua gainditu egin baitugu. Konstatazio horren gainean dago Ezker Abertzalearen indarra” azpimarratu zuen Salaberriak.

### Bergarako proposamena

Bergarako proposamenaren alde egiteko dei egin zuen Salaberriak eta “PNV, EA, Aralar eta sasi irtenbideetan murgildu nahi duten guztiei erakutsi behar zaie herritarrek soluzioak eskatzen dituztela” gaineratu zuen. Bergarako proposamenarekin bat egiten

duten guztiak izenean lan egingo dutela eta “autodeterminazioan oinarritzen diren irtenbide guztiak izenean” joango direla datozen hauteskundeetara. Salaberriak esan zuen Ezker Abertzalea helburu hauen bueltan mugitzen ari dela eta hilaren 15etik aurrera ere mugitzen segiko duela.

### Sektore desberdinak

Osteguneko ekitaldian herriko jendeak ere hartu zuen parte. Sektore desberdinak jendeak irakurri zuen esaldi bat, bere sektore eta inguruari zegokiona eta txistulari, akordeoi jole eta dantzariak ere izan ziren. Ekitaldian bideo bat bota zuten, Ezker Abertzalearen ikuspuntua eta azterketa politikoa azaltzen duen bideoa. □

## Euskarazko film laburren zirkuitua Martxoaren 3an, Hernanin

Lekua: Biteri Kultur Etxea

Ordua: 19:30

Sarrera: Dohainik

kimuak

2004

Euskara  
Elkarteen  
film laburren  
zirkuitua

Antolatzaleak:

**dobEra**  
EUSKARA ELKARTEA

Babeslea:  
**TOPAGUNE**  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBERNU VASCO  
KULTURA SAIA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA

**BASURDEA (14 min.)**

Ane Muñoz Mitxelena

**TERMINAL (12 min.)**

Aitzol Aramaio

**DORTOKAREN UHARTEA (15 min.)**

Maru Solores

**BELARRA (10 min.)**

Koldo Almadoz

**TOPEKA (3 min. 30 seg.)**

Asier Altuna

## HITZ BITAN

### ✓ ZUHAITZ EGUNA

**Zuhaitz Eguna egingo da gaur, eguraldiak lagundi ezkerro.** Atzo eta gaur zen egiteko Zuhaitz Eguna. Atzo suspenditu egin zen elurragatik eta gaur Aparraina joango diren edo ez, goizean erabakitzeko dute arduradunek. Ordua 08:00etan dago jarrita Gudarien plazan.

### ✓ ESPELEOLOGIA

**Hasiera ikastaroa.** Espeleologian hasi nahi dutenek aukera izango dute apirilean egingo den ikastaroan apuntatzeko. Ikastaroa Felix Ugarte Espeleologia Elkarteko adituek emango dute, eta apirilaren 17-18ko asteburuan izango da. Izena emateko telefono honetara deitu behar da: 943 638176. Gehienez 10 lagunek hartu lezakete parte ikastaroan.

### ✓ UR-LUDOTEKA

**Ur-ludoteka kiroldegian, gaur.** Umeentzako ur-jolasak izango dira gaur kiroldegiko igerileku, goizeko 10:30etik 12:30etara.

### ✓ FUTBOLA

**Gorengoen ligan, Hernani-Berio gaur Zubipen.** Hernanik Berio taldearen kontra jokatuko du gaur arratsaldean Zubipen. Hernani 19garren postuan dago sailkapenean eta gaurko partiduan 3 puntu lortzea oso garrantzitsua dute Jon Lorangen mutilek. Partidua, gaur 16:30etan Zubipen.

### ✓ WATERPOLOA

**Hernani-Easo gaur.** Nesken Euskadiko Liga, Hernanik Easo taldearen kontra jokatuko du gaur Hernaniko kiroldegian. Partidua gaur 13:00etan.

### ✓ BOLEIBOLA

**Hernani-Torrelavega gaur.** Hernanik Torrelavega taldea hartuko du gaur kiroldegian, Nesken Lehenengo Liga Autonomikoan. Partidua gaur jokatuko da, 11:00etan, Hernaniko kiroldegian.

### ✓ SASKIBALOA


**Hernanik galdu Atl. San Sebastianen kontra.** Atzo jokatu zuen Hernaniko saskibaloit taldeak Atletiko San Sebastian taldearen kontra, eta 45-38 galdu zuen.

### ✓ RALLYSPRINT TXAPELKETA

**Suspenditu egin da gaurko jardunaldia.** Gaur zen hasteko Euskal Herriko Rallysprint txapelketa, baina, eguraldi txarra medio suspenditza erabaki dute arduradunek. Gabiria Legazpi bidea egiteko zuten gaur parte hartzaleek eta horien artean zen, Hernaniko Josetxo Zapiain. Lagun-Artea elkartea da txapelketa hori antolatzen duena, eta gaur prentsa oharrean kaleratu duenez, datorren igandera atzeratu dute jardunaldia. □

## ZORTZIGARREN URTEURRENA

### Joxe Mari Larretxea Goñi



**HABANAN DEPORTAZIOAN HIL ZEN  
BORROKA ETA BIHOTZA  
EUSKAL HERRIAN ZITUELA**

Zure familia.

Beti gogoan izango zaitugu.

Hernanin 2004ko otsailaren 29an.

## ZERBITZUAK

### ☎ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udalzaingoa: 943 333288
- DYB: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Ambulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

### + FARMAZIAK

- Egunez: Chuila Kardaberaz 48 ☎ 943 551793
- Gauet: Arzallus Andoain. Plazaola 17, pol 25 ☎ 943 591514

## IRAGARKI MERKEAK

Pisua salgai zentroan. 80 m2, 3 gela, sala, sukaldea eta komuna. Kanpoaldera eta igogailua du. Konpontzeko. 180.303 euro (30.000.000 pta). Ez deitu agentziek. 943 277743

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebral, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Sta Barbara 42)

Etxeak matematika lanak egiten laguntzeko pertsona bat behar da. (Institutuko bigarren maila). Deitu: 943 55 19 56